

## Kultura

Guillermo 'Willy' Toledok 'Historias de Lavapiés' filma aurkeztuko du Elorrioko Arriolan, maiatzaren 3an > 12



## Kirola eta elkartasuna Sahararen alde batuta

Durango Rugby Taldeak maiatzerako antolatuko duen Rugby Tag jardunaldia berezia izango da. Ekimenean batzen duten material guztia Río de Oro elkarteari emango diote > 15



## Osasun zerbitzuan euskarazko arreta bermatzeko Berdin elkartea aurkeztu dute

Martitzenean, Berdin elkarteak aurkeztu zuten Plate-ruenean. Euskal Herri mailako elkarte honek osasun sisteman arreta euskaraz eskaintzea bermatu dadila du helburu, eta, bide horretan, erabiltzaile eta langile euskaldunen topagune bihurtu gura du: "Laguntza behar duenari babesa emateko, aholkularitza eskaintzeko eta elkarren arteko harremanak sustatzeko helburua du", azaldu zuen Ainhoa Larrañaga Mondragon Unibertsitateko irakasleak aurkezpenean. > 3



**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

--	--	--

**Elorrioko Haurreskola**

Goietza kalea, 20  
946 584 907  
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus

Elorrioko Haurreskolan matrikulazioa maiatzaren 4tik 13ra izango da

**Ate irekiak**  
Maiatzaren 5ean eta 8an, 16:00-18:00  
Maiatzaren 9an, 11:00-13:00

### Durangaldea > 4

Fumbarriko langileen %15i silikosisia diagnostikatu diete

### Elorrio > 8

Segurtasunagatik hiru pasagune jarriko dituzte San Agustinen

### Zornotza > 6

Oroimena eta jaiia uztartuko dituzte, domekan, Bizkargin

### Durango > 2

Jolas parke bat estaltzeko mozioa onartu du udalak



**Herririk herri****“Sinadura bilketak alkateak niri deitzeko balio izan du”**

Jolas parke bat estaltzeko eskaeragaz, mozio bat aurkeztu du Alaitz Arizagak

**DURANGO M. Onaindia**  
Durangoko hamaika jolas parkeetako bat estaltzea. Eskaera hori modu berritzailean zabaltzen hasi zen duela hila-bete batzuk Alaitz Arizaga durangarra, Internet bidezko sinadura bilketa batez. Ama da, eta uste du, euria egiten duenean, umeez ez dutela non jolastu. Aste honetan, udaleko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu du, alderdiek aho batez onartu dutena. Momentuz ez dago proiektu zehatzik. Bilkura amaieran “udalarekiko hartu-eman erraztea” eskatu zuen Arizagak.

Udakenean hasi ziren sinadurak batzen, parkeren bat estali dezatela eskatzeko. Kuadrillagaz edo lagunekin elkartzean, beti kexa berbera geneukan. Beti kexaka, baina gero ez da inora heltzen. Baten batek esan zidan Basaurin [www.chan-ge.org](http://www.chan-ge.org) webgunea erabili zutela

sinadurak batzeko, eta zerbait lortu zutela. Eta horrela hasi nintzen.

**Eta zerbaitetarako balio izan du ekimenak?**  
Sinadura bilketak alkateak niri deitzeko balio izan du. Hastekoan, zeini bideratu galdetzen dizute webgunean, eta nik alkatearen izena ipini nuen. Udaleko helbide elektronikoa eman, eta berari ailegatu zitzaion.

**Zelan joan zen alkateagaz edukitako berbaldia?**  
Alkateari azaldu nion jende guztiak eskatzen duen gauza bat dela parkeren bat estaltzea. Asteburuetan, Landako Gunea dago, baina aste barruan ere euria egiten du. Erantzun zidan azterketa bat egingo zuela, parke bat estaltzeko obra onena zein izango litzatekeen erabakitzeke.

**Azterketa egin ostean, zer erantzun dizu?**

Joan zen astean egon ginen berriro. Txostenaren arabera, Ezkurdiko eta San Ignazioko parkeak izan ezik, beste guztiak egoera txarrean daude. Estaltzeko egokiena Intxaurrendokoa dela esan zidan, baina ez dagoela dirurik. Azkenean, mozio eskaera bat egitea erabaki nuen.

**Zergatik mozioa?**  
“Egingo dugu” esateak ez zidan askorako balio, hauteskundeak datozelako. Mozioagaz, gobernu bera izan edo aldatuta, konpromiso bat hartzen dute.

**Beharizanari soluzio bat eman beharko zaio. Baina zein?**  
Ez dakit zein den soluzioa, berritzaile bat egitea edo baten bat estaltzea. Bestalde, uste dut badaude lekuak erabilgarri: Landako Gunea, Merkatu plaza... Baina Landako Gunearena oraindik zailagoa dela diote, enpresa batek gestionatzen duelako eta kobratu egiten duelako.



Alaitz Arizaga, Ezkurdiko jolas parkean.

**6.000 euroko laguntza, Nepaleko kaltetuentzat**

Udaleko alderdiek aho batez onartu dute ekimena



Martitzeneko osoko bilkuran, zinegotziak eztabaidan.

**DURANGO M.O.**  
Joan zen zapatuan, Nepalen izandako lurrikararen ondorioz, milaka lagun hil ziren, eta Durangoko Udalak 6.000 euroko laguntza bideratuko du hango kaltetuentzat. Hain zuzen ere, Gurutze Gorriari emango dio dirua. PSE-EE alderdiaren ekimenez landu zuten gaia martitzeneko osoko bilkuran, eta aho batez onartu zuten. “Gure egin-beharra da horrelako ezbeharren aurrean kooperatzea”, adierazi du PSE-EEko Idoia Agorriak.

6.000 euro horiek Bateginez gobernu kanpoko erakundeari emandako laguntzat hartuko ditu udalak; izan ere, Durangoko elkarte horrek desagertzea erabaki berri du.

**ELA pozik, garbiketa arloko beharginen baldintzengatik**

Garbiketa zerbitzuaren baldintzak zehaztu dituzte

**DURANGO M.O.**  
Martitzeneko osoko bilkuran udaleko garbiketa zerbitzuaren kontratazioaren baldintzak onartu zituzten aho batez. ELA sindikatua pozik agertu da, beharginen edukiko dituzten baldintzengatik. Sagrario Martin ELAko ordezkariak adierazi du sindikatuak idatziz aurkeztutako eskaerak jasotzen dituela kontratazio-orriak: besteak beste, herrialde mailako hitzarmenean baino soldata eta lan baldintza hobek, enpresa

aldaketen aurrean subrogatzeko eskubidea eta enpresen balizko urraketari erantzuteko isunak. ELAko ordezkariaren ustetan, baldintza horiei esker lan erreformatik babestuta geratuko dira garbiketa zerbitzuaren beharginak.

Kontratazio-orriaren mozioa aho batez onartu arren, Bildu eta Aralar kritikoki agertu ziren zerbitzuaren azpikontratazioagaz. Euren ustez, zerbitzua publiko bihurtzea litzateke egokiena.

**anboto** komunikabideakBixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558Erredakzioa:  
946 232 523Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org2015eko maiatzaren 1a,  
13. urtea - 587. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña,  
Martxel Zubia Arrinda,  
Eneko Azurmendi Barrena.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egizazu.

**Laguntzaileak:**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





# Osasun zerbitzuan euskarazko arreta bermatu gura du Berdin elkarteak

Erabiltzaile eta langile euskaldunak bilduko dituen elkarte bat izan gura du



Aitor Montes, Ainhoa Larrañaga, Pako Aristi eta Garbiñe Elizegi, martitzenean, Plateruenean egindako aurkezpenean.

**DURANGO J. Derteano**  
Martitzenean, Durangoko Plateruenean aurkeztu zuten Berdin elkarteak. Euskal Herriko osa-

sun sisteman arreta euskaraz eskaintzea bermatu dadila du helburu, eta osasun zerbitzuen erabiltzaile eta langile euskaldunak bilduko dituen elkarte bat izan gura du.

Ainhoa Larrañaga Mondragon Unibertsitateko irakasleak

azaldu zuenez, sasoi batean, medikuntza zientifikoaren ereduak, medikuari ematen zitzaion lehentasuna, baina, egun, pazientearengan zentratutako ereduak da nagusi: "Pazientea da ardatz, zerbitzua pazientearen egoerari, izaerari eta inguru-neari egokitu behar zaio". Eta eredu horri jarraituz, "kalitatezko osasun arreta pazientearen hizkuntzan eskaintzen dena da; arreta eta hizkuntza banaezinak dira". Aitor Montes Aramaioko familia mediku eta elkartearen sustatzaileetako baten esanetan, "kalitatezko zerbitzua pazientearen hizkuntzan eskaintzen dena da, eta ez litzateke osagarri bat izan behar, bete beharreko gaitasun bat baizik".

Larrañagak erantsi zuen euskarazko arreta "edonon eta edonon" bermatu behar dela: "Maila guztietan eman behar da, kontsultategian zein ospitalean, ahoz zein idatziz". Horrela, elkarte berriak osasun zerbitzuen erabiltzaile eta langile euskaldunak bilduko dituen elkarte bat izan gura du: "Laguntza behar

duenari babesa emateko, aholkularitza eskaintzeko, elkarren arteko harremanak sustatzeko, modu horretara osasun arretaren kalitatea bermatuz". Laburbilduz, "aniztasunetik abiatuta, berdintasuna bultzatuko duen elkarte bat izan gura dugu", azaldu zuten.

Baztango egoeraren berri, adibidez, Garbiñe Elizegi bertako alkateak eman zuen aurkezpen ekitaldian. Euskarazko osasun zerbitzua izateko zailtasunak dituzte, eta egoera aldatzeko erakundeetan neurri bila dabilzala azaldu zuen.

Pako Aristi idazlea euskara "berriro piramide sozialean birkokatzeko" beharraz mintzatu zen. Besteak beste, "politikarien utzikeria" salatu zuen: "Euskal Herrian ez da oraindik erabaki politiko global bat hartu euskarari buruz, lurralde osora eta maila guztietara zabalduko litzatekeena. Euskara oraindik zintzilik dagoen gai bat da; ez dago estrategiarik, eta, estrategia falta denean, arazo kolektiboa indibidual bihurtzen da."



**Itziar Lasa Beitia**

Familia medikua Arrasaten

**"Erabiltzaileek izan behar dute osasunean euskara sustatzeko motorra"**

**DURANGALDEA J.D.**

Itziar Lasa durangarra Arrasateko anbulatorioan familia medikua da. Berdin elkarteari hainbat abantaila ikusten dizkio osasun arreta zerbitzua euskaraz bermatzea lortzeko bidean.

Osasun zerbitzuan euskararen erabilpena sustatzeko lana gertutik ezagutzen duzu. Bai; izan ere, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko kidea naiz. Orokorrean, osasun arloan euskara sustatzeko sortu zen erakunde hori. Berdin elkartearen aurkezpena etortzeko gonbita jaso genuen, eta nire sostengua eskaini nahi izan diot.

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak ibilbide luzea dauka?

Orain 25 urte sortu zen. Baina, ikusten denez, osasun arloan oraindik lan asko dago egiteko.

Berdin elkarteak zer onura eskaini ditzakeela uste duzu?

Elkarte berriak gureari lagundu diezaioke. Osasun arloan euskarari beste bultzada bat emateko balio dezake. Gainera, beste arlo bat landuko du, erabiltzailearena. Nire ustez,

erabiltzaileek izan behar dute osasunaren arloan euskara sustatzeko motorra. Langileek barrutik zein administrazioek egin beharrekoa egin beharko dute, baina soziologikoki ez badago eskaera bat, eta norbana-koak ez badira aktibatzen eta ahalduntzen, ez dugu lortuko. Elkarte honek esparru hori indartuko du.

Zelan lortu daiteke herritar-  
rak aktibatzea?

Aurtengo Korrika amaierako mezuan Lorea Agirrek esan zuen moduan, "ez da hain inportantea izatea ala ez izatea; inportantea dena ekitea da". Norberak bere lotsak kendu, ausardia hartu, eta bere hizkuntzan berba egitea. Hori oso alderdi garrantzitsua da. Eta badago horretarako aukera Osakidetzan.

Durangaldean zelakoa da euskaraz artatua izateko aukera?

Nire ustez, Durangaldean badago euskaraz artatua izateko aukera. Askotan erabiltzaileok ez dugu euskara erabiltzen. Beharbada, lehenengo, bitarteko egokiak aurkitu beharko lirateke, eta, ondoren, eskaintza hori bermatu.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**GURE IKASLEEN AHOTAN**



## "Hezkuntza metodologia da gehien gustatzen zaidana"

**Ion Gallastegi Lehen Hezkuntza graduako Atzerriko Hizkuntza ibilbideko ikaslea da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI).**

**·Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?**  
Lehen hezkuntzako graduan heztea erabaki nuen haur hezkuntzako graduak ez didalako inoiz arreta deitu, eta erabakia hartuta neukan zalantzarik gabe. Lagun batek gomendatu zidan ikasketak bertan burutzea, beraz animatu eta halaxe egin nuen.

**·4. mailan zaude dagoeneko. Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**  
Nire esperientzia baloratu beharko banu, 4 ikasturteak oso azkar igaro direla esan beharra daukat. Konturatu barik 4. maila iritzi da jadanik, eta denbora oso azkar igaro da. Nire esperientzia positiboa izan da, nire gelakideekin erlaziozatzeko aukera izan dudalako eta gauza asko atera ditudalako bertatik.

**·Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**  
HUHEZI-n jasotako ikasketak metodologia ez nuen espero aurretik, eta lehenengo ikasturtetik harritu ninduen, baina positiboki. Egutero ikasten ditugun kompetentzietan nabarmenduko nuke bertako metodologia, tradizionalatik at dagoen metodologia.

**·Praktikaldiak burutzen ari zara une honetan, kontaguzko non eta zertan ari zaren?**  
Nire ikasketak atzerriko hizkuntzan zentratuz, nire praktikaldia San Jose Jesuitak ikastetxean burutzen ari naiz, eta bertan lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleekin ari naiz.

**·MUTIK zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?**



Nire kasuan MUko HUHEZIKo fakultatek gehien gustatzen zaidana bertako ikasteko era da. Aipatu bezala ikasketak tradizional eta memoristiko bategatik aldentzen den metodologia da bertakoa, eta hori da gehien gustatzen zaidana. Hobetzekoak ere badaude noski, esaterako urtetik urtera dagoen ordutegi aldaketa aipatuko nuke, baina edozeinek beste edozer pentsa dezake.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



## Fumbarriko beharginak: “Ez goaz lanera gaixotzera edo hiltzera”

2011z geroztik Durangoko Fumbarri enpresan lan egin dutenen %15i silikosia atzeman diete

**DURANGALDEA** A.U. / M.O.  
2011z geroztik Durangoko Fumbarri galdategian lanean ibili diren beharginen %15i silikosia diagnostikatu diete. Datu hori eman zuten martitzenean, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira LABek deitutako manifestazioan. Fumbarri hasi, eta udaletxeraino joan ziren manifestariak, eta, bertan, beharginen izenean Juan Karlos Larrinaga ordezkariak egin zuen berba. Bere arabera, jabeek, “enpresa zabaldu zenetik, ez dute inolako ahaleginik egin prebentzioan”, eta prebentzio hori exijitu zuen, “gainontzeko lankideak gaixotu ez daitezen”. Mezu argia botatu zuen: “Ez goaz lanera gaixotzera edo hiltzera. Duintasunez bizitzeko egiten dugu lan”. Hurrengo asteetarako protestak iragarri zituen Larrinagak.

Langileen eta sindikatuen mobilizazioek ez dute etenik as-

teon. Izan ere, martitzenean ostean, Maiatzaren Lehengo protestak egingo dira gaur. LABek berak, esaterako, manifestaziora deitu du 12:00etarako, Durangoko udaletxetik hasita. Euren eskubideen alde enpresetan borrokan dabilen langile guztiak omendu gura ditu sindikatuek gaurko ekintzagaz.

Bestalde, ELAk Bilbora joateko deia egin du. 11:45ean, Jesusen Bihotza plazan mitina egingo du, eta, ostean, manifestazioa ere bai.

**Ernainen ekimenak**  
Maiatzaren Lehena dela-eta, Borroka Astea garatzen dabil Ernai gazte erakundea, eta hainbat jarduera eraman ditu aurrera Durangon eta Elorrion, besteak beste. Durangarrek etxebizitza eskubideagaz lotu dute egitaraua, eta elorriarrek emakumearen ikuspuntutik jorratu dute.



Martitzenean, Durangon eginiko manifestazioa.



Fumbarriatik irten zen protesta.

## Gizarte larrialdietarako laguntzak %5,4 igo ziren iaz

**DURANGALDEA** J.G.  
Durangoko Amankomunazgoak kudeatzen dituen gizarte larrialdietarako laguntzen (GLL) eskaerak %11 igo ziren 2014an. Guztira, iaz emandako laguntzen diru kopurua 475.808 eurokoa izan zen, 2013an baino %5,40 gehiago. Gainera,

Amankomunazgoak 475.808 euro banatu zituen gizarte larrialdietarako laguntzetan, 2014. urtean

Amankomunazgoak 70.000 euro jarri zituen bere funtsetatik, eskaera guztiei aurre egin ahal izateko. Prentsa oharrean azaldu dutenez, diru-laguntzak eskatzaileen alokairuak ordaintzeko (%35) eta etxeak mantentzeko (%32) izan ziren.

Aurten, Amankomunazgoak Eusko Jaurlaritzatik heldutako 417.916 euro kudeatuko ditu gizarte larrialdietarako laguntzetan.

## Maiatzetik aurrera, anbulatorio zaharrea egongo da ludoteka

Kalabazaneko begiraleen ustez, Kultur Etxea baino “leku aproposagoa” da

**BERRIZ** Amaia Ugalde  
Maiatzaren 9an leku berria estreinatuko dute Kalabazan ludotekan dabilen begiraleek eta umeek: Kultur Etxetik anbulatorio zaharrera pasatuko dute ludoteka. Orain arte, kultur etxeko hirugarren pisuan egin dute bi zapaturik behineko jarduna, baina, bertako baldintzak egokienak ez zirela-eta, beste lokal bat eskatzen ibili dira begiraleak.

Kultur Etxeko lokala arin berotzen dela nabarmendu dute begiraleek, eta umeentzako

ez dela aproposena: “Gainera, moketa dauka, eta umeekin beti zikintzen izan da apur bat; astelehenetan, yogako taldeak igarri izan du hori”, azaldu du Ireide Serrano begiraleak. Horretaz gainera, hirugarren pisuan egonda, kalera irtetea ez

Datorren astean ibiliko dira Pagotxa aisialdi elkarteak materiala anbulatorio zaharrera mugitzen

zen hain samurra. Anbulatorio zaharrea, gainean dagoen parkera joateko aukera izango dute umeek.

Datorren astean ibiliko dira Pagotxa aisialdi elkarteak materiala bertara mugitzen.

Kalabazan ludoteka Pagotxak kudeatzen du, eta hiru begirale ibiltzen dira 3 eta 11 urte arteko umeekin. 15 eta 30 ume artean hurreratzen dira bertara. Arratsalde osoan edo bi txandatan egon daitezke umeak, 17:00etatik 18:30era eta 18:45etik 20:15era.

## 12 proiektu, aurrekontu parte-hartzaileei esker

28.700 euro erabiliko dituzte proiektuak garatzeko

**MAÑARIA** Markel Onaindia  
Mañariko Udalak aurten ere aurrekontu parte-hartzaileak garatu gura izan ditu, aurreko urte bietan hasitako bideari jarraitzeko. Horrela, urteko aurrekontu osoaren zati bat herritarrek egindako ekarpenekin beteko dute. Endika Jaio alkateak azaldu du 24 bat proposamen aurkeztu zituztela herritarrek, eta ondoren egindako batzar zabal batean horietatik hamabi aukeratu zituztela.

28.700 euro erabiliko dituzte proiektu horiek guztiak aurre-

ramateko. Esaterako, parke gorrian nagusiek gimnasia egiteko tresnak ipintzeko 5.000 euro hartuko dituzte. Erabaki garrantzitsu bat udalekuen eskaintza zabaltzea izan da; orain arte, uztailean, pare bat astetan garatzen ziren, eta, aurten, uda osoan zein Gabonetan egongo da zerbitzua. 7.000 euro gorde dituzte ekimen horretarako.

Jaiok gogoratu du onartutako ekintzak egia bihurtzen direla, eta herritarrek hurrengo partaidetza saioetan parte hartzera animatu ditu.

**Chimeneas**  
Cerámicas **MACOBER**  
Sanitarios

**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

katerin ardoak  
iñaki uribe

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
**saltsan.com**

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403



# EDERTASUN GIDA



**Ana Camarero.**

## Azido hialuronikoa

Azalaren hidrataziorako produktu bat dakar oraingoan Ana Camarero: azido hialuronikoa. Maiatzean %30eko deskontua dauka.

### Zergatik probatu behar dugu azido hialuronikoa?

Azalaren barne hidratazioan garrantzitsuen ura edatea eta barazkiak jatea da. Baina kanpotik ere zaindu behar dugu, eta, horretarako, azido hialuronikoa da produktu izarra.

### Zer lortuko dugu ematean?

%100 naturala da, eta zimurrak zein markak murrizten ditu. Hidratazioa berehalakoa da, eta eragina hamabi ordu baino gehiagokoa izatera heltzen da. Edozein azaletan erabili ahal da, eta ez du parabenorik.

### Produktu bat baino gehiago dago?

Bai. Hidratazio krema, seruma, begi ingurunea zaintzeko eta kosmetiko-geruza daude. Guk tratamenduak egiten ditugu, eta hilabete honetan %30eko deskontuagaz.



## ILE APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

**Lehen 63€ orain 44€**

**%30eko deskontua azido hialuroniko bidezko tratamenduan**

**Prestatu zure azala**

- Zimurraren berehalako betetzea
- Hidratazio sakona
- Ehunaren birtrinkotzea
- Kolagenoaren estimulazioa

Malatzaren 4tik malatzaren 29ra  
Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



## DIETETIKA eta NUTRIZIOA

**HIRU FISIOTERAPIA ZENTROAREKIN BATERA**

**Nerea Sarriugarte**  
Dietetika eta nutrizioa



Antso Estegiz zumardia, 4  
48200, DURANGO  
nesarriugarte@gmail.com  
**666 850 469**



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## Domekan, Bizkargiko Eguna ospatuko dute, Santa Krutz inguruan

Bertsolarien saioa eta Zirkinik Bez Zornotzako taldearen musika egongo dira, besteak beste

**ZORNOTZA J. Derteano**  
Urteroko ohiturari utsiz, domekan, Bizkargiko Eguna ospatuko dute izen bereko mendian dagoen Santa Krutz ermitaren bueltan. Gune horretan lau herririk muga egiten dute: Zornotzak, Larrabetzuk, Morgak eta Muxikak.

Bizkargi mendiak esanahi berezia du historikoki, 36ko gerran borroka latzak gertatu zirelako bertan. Hildako eta zauritu asko izan ziren alde bietan. Izan ere, balio handiko tontorra zen estrategikoki. Baina gerraren aurretik ere batzen ziren Bizkargin, jai giroan. Beraz, domeka honetan, jai eta oroimena

uztartuta ospatuko dute eguna. Ohi bezala, 12:30eko oroimen ekitaldiaren ostean, Etxanoko auzo elkarteko ordezkariak txuzoa lurrean sartuko du, ondoren etorriko diren ekitaldiei hasiera emanez.

Ondoren, Etxahun Lekue, Xabier Arriaga *Txiplas*, Onintza Enbeita eta Miren Amuriza bertsolariek bertso saioa eskainiko dute. Ostean, 13:00etan, Zornotzako Zirkinik Bez musika taldeak emango dio jarraipena jaiari. Oro har, egun osoan ez da musika faltako; ohiko txistulariez eta trikitilarietaz gainera, aurtun joaldunak ere entzun ahal izango dira Bizkargin.



36ko gerran hainbat borroka izan ziren Bizkargin.

## San Migel, Ogena eta Garitondoko bideetan asfaltoa botako dute

**ZORNOTZA J.D.**

Udalak San Migel, Ogena eta Garitondo auzoetako hiru bide asfaltatuko ditu. Guztira, 1,4 kilometro izango dira, eta herriko auzoetara sarrera-irteera erraztea dute helburu lanek.

Lehenengo bideak 550 metro ditu, eta San Antonio industrialdea San Migel auzoagaz lotuko du. Bigarrenak 600 metro ditu, eta Garitondotik hasi eta Larrabetzugaz muga egiten duen lekuraino doa. Azkenik, Ogena auzorako sarbideko 300 metro ere asfaltatuko dituzte.

Udalarenak diren bideak asfaltatzeko asmoaren barruan, Zornotzako Udalak 120.000 euro baino gehiago inbertitu ditu. Hiru bide horiek azken urteotan konpondutako 71 kilometroei batuko zaizkie.

## Arriaundiko kaleratuek protestak hasi dituzte

LAB sindikatuak elkarretaratzeetara deitu du

**IURRETA Aitziber Basauri**  
Arriaundi gozogintzan kaleratutako sei langileak berriro onartu ditzaten eskatzeko elkarretaratzeetara deitu du LAB sindikatuak. Egunero elkartuko dira Durangoko Andra Mari-ko elizpean, 12:30etik 13:00etara. Horretaz gainera, gaur, Maiatzaren 1a, aldarrikapen hori berri Durangoko kaleetan zabalduko du sindikatu abertzaleak.

LABek jakinarazi duenez, Arriaundi enpresaren berririk ez dute, orain astebete sei langile kaleratu zituztenetik –horietatik bost LABeko afiliatuak dira, eta, seigarrena UGTkoa–.

## Aurrekontuei buruzko eztabaida atzeratzea erabaki du udalak

**IURRETA Jone Guenetxea**  
Iurretako Udalak 2015eko aurrekontuak asteleheneko udalbatzarrean eztabaidatzea aurreikusita zuen. Udaleko lanpostuen balorazioaren eztabaidak, ordea, aurrekontuen gaia atzeratzea eragin zuen. Izan ere, lanpostuen balorazioa ez zen aurrera irten, oposizio guztia (Bildu, PSE-EE eta PP) kontra izan zuelako. Zorion Agirrezabal Bilduko zinegotziaren arabera, “balorazio honek ez

LABen kontrako jazarpen sindikala sarritan salatu izan du sindikatuak: “Jazarpen hori are eta bortitzago bihurtu da soldaten jaitsierari ezetz esan genion momentutik –enpresak CCOO eta ELA sindikatuarekin batera onartutakoa–”. Gaineratu dutenez, jazarpen horren ondorio “larriena” kaleratzeak eta “lanpostuen suntsiketara” dira. LABek gaineratu du ez dietela uzten lanpostuak mantentzeko alternatibak aurkezten.

Sindikatuak salatu du LABeko afiliatuak langileen eskubideak defendatzeagatik kaleratu dituztela.

ditu lan karga eta lan banaketa arazoak konpontzen”.

Maria Angeles Muñoz PSE-EEko zinegotziak, berriz, batzordearen funtzionamenduagaz ez zegoela konforme azaldu zuen, eta txostena alderdiaren aholkularitza juridikora eraman duela.

Iñaki Totorikagunea Iurretako alkateak “harriduraz” hartu zuen entzuten zebilena. “Batzordean denok parte hartu duzue. Paritarioa izan da, eta ezin da esan arineketan ibili garenik, zortzi hil izan ditugu”.

Nacho Toca PPko zinegotziak lanpostuen balorazioa hauteskunde ostean sortuko den udalbatzaren esku uztea proposatu zuen.

## Berbalagun egitasmoak bideo proiektzioak eskainiko ditu

**OTXANDIO J.D.**

Amaraune euskalzaleen sareak Berbalagun egitasmoa abiatu du Otxandion. Euskaldun berriei euskaraz berba egiteko guneak eskaintzea da egitasmo horren helburua. Horretarako, euskaldun zaharren eta berrien arteko tertuliak antolatzen ditu, azken horiek euskara praktikatzeko aukera izan dezaten. Aurten, 20:00etatik 21:30era batuko dira astelehenero. Egitasmoa aurrera eramateko euskaldun zaharrei parte hartzeko gonbita luzatu diete. Interesatuak e-mail honen bidez jarri daitezke antolatzailerekin hartu-emanetan: [euskara@otxandio.net](mailto:euskara@otxandio.net).

Aurten, hamabostero Koikili Aterpetxean bideo proiektzio baten ostean tertuliak edo gaiari buruzko elkarrizketak antolatuko dituzte. Parte-hartzaileen arabera gustuekin urteko egutegia osatzea eta garatzea da asmoa. Lehenengo proiektzioa eguaztenean izan zen: *Gizonak gizon eredu tradizionaletik ihesi* izan da proiektzioaren eta osteko tertuliaren gaia.

Bideo proiektzioaren ostean, gaiari buruzko tertuliak egingo dituzte Koikili Aterpetxean

## Giro onean ospatu dute lantziegarrekin senidetza

90 bat lagun batu ziren zapatuan, herri bazkarian

**GARAI Markel Onaindia**

Joan zen zapatuan, herri bien arteko senidetza ospatzeko jaialdia egin zuten Garaiko eta Lantziegoko (Araba) herritarrek, eta Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du giro onean pasa zutela eguna. Esate baterako, herri bazkarian, guztira, 90 bat lagun batu ziren.

Sarrigoitiak kontatu duenez hogeitaz lantziegar etorri ziren Garaira, eta heldu bezain laster hamaiketako egin zuten elkarrekin. Gero, triki-poteoan ibili ziren tabernetan, eta, eguerdian, bazkaria egin zuten pilotalekuan.

Ez zen hor amaitu jaiak. Izan ere, arratsaldean, erromeria

eduki zuten Laja eta Narbaizagaz. Gaueko 21:00ak arte iraun zuen gutxi gorabehera musika emanaldiak.

Garaiko eta Lantziegoko herritarren arteko hartu-eman dantzari eskerrak sortu zen

Garaiko eta Lantziegoko herritarren arteko hartu-eman dantzari eskerrak sortu zen, eta duela urte bi senide bihurtzea erabaki zuten udalek. Ondorioz, urtero bisitak trukatzeko dituzte.



Garaitarrak eta lantziegarrek, joan zen zapatuan ateratako familia argazkian.





# JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA Matrikulazio epea:

maiatzaren  
4tik 13ra, biak barne  
Etor zaitezte  
Haurreskola ezagutzera!

0 eta 2  
urte arteko  
haurrentzat

JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA  
San Roke, 4  
Zabalarra eraikina  
48200 Durango  
Tel.: 946 203 516  
[julene.durango@haurreskolak.eus](mailto:julene.durango@haurreskolak.eus)



# Segurtasunagatik, San Agustinen hiru pasagune ipiniko dituzte

Irailean, oinezko bat hil zen auto batek harrapatuta, bidea zeharkatzen zebilela

**ELORRIO** Markel Onaindia Segurtasuna hobetzeko helburuz, San Agustinen hiru pasagune ipiniko dituzte. Urrian, oinezko bat hil zen zebra bidean, auto batek harrapatu eta gero. Aldund iaren errepide zatia da, eta, udalak agertutako kezka ondorioz, bertan semaforo bat ipintzea adostu zuten erakunde biek. Gainera, jasotako pasaguneak sortzea ere eskatu zuen udalak. Hori egia bihurtu ahal izateko, errepide zatia udalaren

jabetzakoa izatera pasatuko da. Izan ere, Aldundiak ez ditu jasotako pasabideak ezartzen bere errepideetan. Edozelan ere, Aldundiak ordainduko du obra.

Biribilgunetik elizara bidean ipiniko dituzte pasagune bi, eta hirugarrena, gaur egun semaforoa dagoen lekuan. Gainera, errepidea estutuko dute.

Bildu abstenitu egin zen bilkuran. Xabier Orbegozok kritikatu zuen ez dutela informazioz edukitu, eta EAJk ez duela

hartu-emanik eduki San Agustineko auzo elkarteagaz. Joseba Mujika alkateordeak azaldu zuen kaltetutako bizilagunekin egon direla, eta informatzeko borondatea eduki dutela. PPko Carlos Garcia ez zen bertaratu.

Bilkura eta gero Bilduko Idoia Buruagak EAJ kritikatu du. Adierazi du enteratu direla udala eta aldundiaren artean ez dagoela hitzarmen ofizialik, eta proiektua interes elektoralagaz aurkeztea leporatu dio EAJri.



Semaforoa dagoen lekuan ipiniko dute jasotako pasaguneetako bat.

## Udalak 5 puntutik 3,9ko balorazioa duela dio Elorrioko gobernu taldeak

**ELORRIO** J.G.

Elorrioko Udalak kontuak jendaurrean aurkezteko prozesuak balorazio positiboa izan duela azaldu du gobernu taldeak (EAJ) prentsa ohar bidez. 5 puntu posibleetatik 3,9 puntuko batez bestekoa jaso duela jakinarazi du. Guztira, 130 elorriarrek hartu dute parte asebetetze maila neurtzeko martxan jarritako galdeketa. Balorazioa egiterako orduan, azken lau urteetan udalerrian gauzatutako 22 proiektu hartu dituzte erreferentziatzat.

Balorazio altuena jaso duen proiektua pertsona nagusiei zuzendutako suteen aurkako sistema da -5 puntutik 4,5 eskuratu ditu-. Bigarren lekuan, eskolako bidean egindako lanak eta auzo taxi zerbitzua daudela azaldu du gobernu taldeak.

Aurreratu duenez, hobetu beharreko gaien artean udal kiroldegiaren kudeaketa, Pulla Azkarretako Plan Partziala eta udaltzaingoaren egoitza berria daude.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**GOIZTIDI DIAZ**  
EAJ



### Badago oraindik zereginik

Irakurle estimatua.

Astekari honetan idatziko dodan azken aldia da hau, hauteskundeak baino lehen. Bai, halaxe da, irakurle zintzo hori, maiatzaren 24an udal eta foru hauteskundeak izango doguz. Eta egun horretan hautesleek boto bi emoteko aukera izango dogu: bata, gure Udaleko zinegotziak aukeratzeko, eta, bestea, Batzar Nagusietako ahalduak aukeratzeko. Muga gaitezan, irakurle argia, udal hauteskundeetara. Kasu horretan, gure Udalerrian bost aukera politikoren artean hautatzeko abagunea izango dogu. Alabaina, aukera guztiei zor jaken errespetua alde aurretik aintzatetsiz, egiatan bi eredu nagusien artean hautua egiteko momentua izango dogu.

Ez dira atzo jaiotako aukerak. Ez. Aspaldidanik gartzen ari diren bi proiektu dira. Eta esperientzia zehatzetan islatzen direnak. Bata, Durangon azken hamarkadetan haziarazi dan egitasmoa. Bestea, oso gertu daukagun udalerritan ikusi ahal doguna, besteak beste, Gipuzkoako herri batzuetan. Elkarlana vs inposizioa. Etorkizuna ahaleginez eta lanez eraikitzea ala hitz hutsalez eta proklama potoloz zerua betetzea. Konponbideak eta aukerak proposatzea edo norberaren iritzia gainerakoei ezartzea. Talde politiko guztiekin adostasunak lortzen saiatzea ala ezezkoa etengabe mahaigaineratzea. Bosgarren edukiontzia edo atez atekoa. Irakurle preziatua, zure esku dago. EAJkoentzat pertsona da ardatza.

## Nekazari eta artisau azoka egingo dute, maiatzaren 9an

Iazko postuak bikoiztu egingo dituzte aurten

**ATXONDO** Joseba Derteano Atxondoko gaztetxeak II. Nekazari eta Artisau Azoka antolatu du maiatzaren 9rako, Apatan. Iazko lehenengo aldirian, hamabi postu jarri zituzten, eta, aurten, kopuru hori bikoiztuko dute, eta 25 postu inguru egongo dira.

Apatako plazan eta Euskalherria kalean kokatuko dituzte postuak, 10:30etik aurrera; animalien, nekazaritza produktuen eta artisautzaren gainekoak izango dira. Animaliei dagokienez, astoak, oiloak, zaldiak, ahuntzak, ardiak eta

behiak ikusi ahal dira. Artisautzako postuetan, bitxiak, lorontziak eta oinetakoak izango dira, besteak beste. Nekazaritza produktuen gunean, txorizokak, gaztak, arrautzak, ogiak eta barazkiak erosi ahal dira, beste hainbat produkturen artean.

Ekoizle asko atxondarrak eta inguruetaoak dira, baina, esaterako, pasta egiten duen igorretar bat eta *shiitake* ekologikoa ekoizten duen arabar bat ere etorriko dira. Ekoizle asko gazteak izango direla nabarmendu dute antolatzaileek.

## Genero indarkeriaren inguruko protokoloa

Udalak protokoloaren berrazterketa onartu du

**MALLABIA** Jone Guenetxea Mallabiko udalbatzak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloaren berrazterketa onartu du. Era berean, protokoloan parte hartzen duten profesionalen sinadurak berriztu dituzte: Osakidetza, Ertzaintza eta herriko eragile sozialak.

Mallabiko Udaleko ardura-dunek azaldu dutenez, udalak genero indarkeriaren aurka apustu serioa egin du azken urteotan. Gai honen inguruan hainbat diagnosi, plan eta pro-

tokolo gauzatu dituzte. Gainera, protokoloaren helburuak bete ahal izateko erremintak sortzeari ekin diote. Berdintasunerako lantaldea, esate baterako, herrian berdintasuna transbertsala izan dadin eta udaleko esparru guztietan landu dezaten dabil lanean. Era berean, Nahikari emakume elkarteak sortu denetik ekintza gehiago antolatzen direla azpimarratu dute. Iazko azaroan martxan jarri zuten Mallabiko Berdintasun Kontseiluan ere parte hartzen du emakume elkarteak.



**Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194



# Gizon-emakumeen berdintasuna bultzatzeko ordenantza aurrera

Berdintasunaren arloa arautzeko udal ordenantza onartu dute aho batez



Udalean ordezkariak daukaten hiru alderdietako ordezkariak azpimarratu dute ordenantza beharrezkoa zela.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Abadiñoko Independentienteak alderdiko, Bildu koalizioa eta EAJko ordezkariak batzordean landutako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako

ordenantza aho batez onartu zuten, eguazteneko udalbatzarrean. Berdintasunaren arloa arautzeko ordenantza bat onartu duen Bizkaiko lehenengo herria da Abadiño.

Ordenantzaren arabera, udalak berdintasuna sustatuko du, bai udaletxeko barne lanean, bai herriko bizitza publikoan.

Udaletxeko barne jardunari dagokionez, ordenantzak jaso-

tzen du gizonak eta emakumeak Gobernu Batzordean modu orekatuan ordezkariak egongo direla, udal teknikariak euren lanorduetan bazterkeriaren aurkako ikastaroak hartuko dituztela eta kontratu publikoetan berdintasuna bermatzeko klausulak ezarriko dituztela.

Ordenantza jasotzen denez, ikastetxeetan sentsibilizazio planak martxan jartzea bultzatuko du Abadiñoko Udalak, eta azterketa bat egingo du, indarkeria eta portaera matxista kasuak identifikatzeko eta horien kontrako neurriak hartu ahal izateko.

Udalean ordezkariak daukaten hiru alderdietako ordezkariak azpimarratu dute "beharrezkoa" zela ordenantza hori. Orain, bertan jasotako gauzatzeko, "guztion konpromisoa ezinbestekoa" dela azpimarratu du Irakusne Gorospe Bilduko ordezkariak. Sarai Mimenza EAJko zinegotziak gehitu du berdintasunaren arloan "lan asko" dagoela egiteko oraindik.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Ebalixu taldearen kantu afaria

**ELORRIO** > Ebalixu euskara taldeak kantu afaria antolatu du maiatzaren 8rako. 19:00etan batuko dira, Parra tabernan, eta, bertatik hasita, poteoa egingo dute lehenengo. Gero, plazara bueltatuko dira, afariagaz gozatzeko. 8 euro balio dute afarirako txartelek, eta Parran zein Portalekuan eskuratu ahal dira.

### Udalekuetarako begirale bila

**ABADIÑO** > Udalekuetarako begiraleen lan poltsa zabaldu dute, eta maiatzaren 18ra arte eman ahal da izena. Izena eman gura duenak [lan-poltsa@abadiano.org](mailto:lan-poltsa@abadiano.org) helbidera bidali behar du curriculum, pdf formatuan, eta baita udalaren webgunean eskuratu daitekeen izen-emateko inprimakia ere.

### Herria elkarteak jaia ospatuko du

**DURANGO** > Maiatzaren 1eko jaia ospatuko du gaur Herria auzo elkarteak. 11:00etan hasita, zikloturisten martxa eta Kriskitinen dantza saioa egongo dira, adibidez. Arratsaldean, tute txapelketa, umeentzako jolasak eta magia ikuskizuna eskainiko dituzte, eta, iluntzean, erromeria.

### Santo Tomas ondoko parkeko zorua zelaz berritu aztertzen dabil

**IZURTZA** Joseba Derteano Azken udalbatzarrean kreditu aldaketa batzuk onartu zituzten, hainbat inbertsionari bideratzeko helburuagaz. Horieta bat Santo Tomas inguruan dagoen umeentzako parkeko zorua hobetzeko erabiltzea da asmoa. Asmo hori zelaz gauzatu aztertzen dabil orain udala.

Gune hartako harea ez dago ondo banatuta, eta dena altxatu gura dute, ondoren, esaterako, belarragaz berritzea. Behar den tokietan txin-txaun berriak egokitu gura dituzte, batzuk zaharkituta geratu direlako eta beste batzuk ostu egin dituztelako. Zoruan dagoen babesgarria ere berritu gura dute. Gainera, jolas parkeak gorantz eta errekari parelelo doan pasealekua garbitu, eta egoki ipiniko dute. Azkenik, ermitara heldu aurretik, bidegorriko zati batean euriteek bere sasoian eramandako harea ere berritu gura dute.

### Bi urtez lantzen jardundako Plan Orokorra onartu du udalbatzak

**ZALDIBAR** I.E. Eguazteneko udalbatzarrean, bi urtez diseinatzeko jardundako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearen hasierako onarpena egin zuten aho batez. Bilduko sei zinegotziek, eta PP eta PSE-EEko zinegotzi banak eman zuten aldeko bozka. EAJ alderdiko bi zinegotziak eta

PSE-EEko bigarren ordezkaria ez ziren udalbatzarrean joan.

Bi urteko parte-hartze prozesuaren ondorioak daude jasota dokumentu horretan, eta, hiri-gintza arloan, herriaren datoen urteetarako garapenaren ardatzak zehazten ditu.

Datozen bi hilabete eta erdian, Plan Orokorra honi alegazioak egiteko aukera edukiko dute herritarrek. Datozen asteetan, bestalde, Plan Orokorrearen inguruko erakusketa bat ipiniko dute udaletxeko sarreran, eta, teknikariak egongo dira herritarrei argibideak emateko.

## **Iritzia**

### Maiatzaren Lehena 2015. Prekarietateari ez!

Mugimendu sindikalarentzat erronkaz beteta dagoen oraina eta geroa ikusirik, Maiatzaren Lehenean ELAk lehenik gorazarre egin nahi die bere militanteei, horiek euskal langile-klasearen interes eta helburuak defenditzeko prest dagoen proiektuarekin agertzen duten konpromisoa dela eta; hain zuzen, militanteon lanari esker proiektu horrek ELAren gehiengoa berritu ahal izan du hauteskunde sindikaletan.

Sindikatuak indarra ematen digu. Gobernuek pertsonarik ahulenen babeserako tresnen aurka ekiten diote: negoziazio kolektiboa, fiskalitate progresiboa, zerbitzu eta prestazio publikoak, demokrazia eta parte hartze soziala, esate baterako. Besterik egiten ez badugu, instituzioak beste politika bat egitera derrigortzen ez baditugu, hazkunde ekonomikoak desberdintasun handiagoa ekarriko du.

Haien helburu nagusia prekarietate laboral eta soziala lortzea da. Izan ere, prekarietateari esker askoz diru gehiago irabazten dute, gure jendea azpiratuta daukate, eta gure nortasuna, kolektibo gisa, lausotuta geratzen da.

Badakite sindikalismo antolatua beren asmoetarako oztopo bat dela, eta ez dute onartzen. Sindikalismoak badaki indarraren banaketa oso desberdina dela; horregatik berresten du sindikatua, langile-klase antolatua, dela indarra ematen diguna.

ELAren ustez, sindikalismo abertzaleak gure herriaren burujabetzari egin diezaiokien ekarpenik nagusienetakoa justizia soziala eta solidaritatea defendatzea da.

Hau guztia aldarrikatzeko, Bilbon ospatuko dugu Maiatzaren Lehena. 11:45ean dugu hitzordua Bilboko Jesusen Bihotza plazan.

### Fracking ez! ere kanpainan

Euskal Herriko Fracking Ez! plataformak kanpaina hasi du, maiatzeko foru eta udal hauteskundeetara begira. Hauteskundeetara aurkeztu diren zerrendaburu eta hautagai nagusiei dokumentu bat helaraziko diegu, frackingaren aurrean duten posizionamendua zein den herritarren aurrean argitu dezaten.

Botoa hautetsontzietan sartu aurretik eskubidea daukagu jakiteko alderdi edo hautagai bakoitzak zer egiteko asmoa duen, haustura hidraulikoa gure herrietara helduko balitz. Horretarako, frackingaren aurkako konpromisoa hartzea eskatuko diegu.

Durangaldean ere bagabiltza di-

namika horrekin. Kasu batzuetan zuzenean jarriko gara harremanetan hautagaiekin; beste batzuetan, alderdiei helarazi diegu eskaera. Aldiz, ulertuko duzuen moduan, ez da erraza zerrendaburu guztiengana heltzea. Horregatik, alderdi politikoren batek edo zerrendaburu batek oraindik ez badu konpromiso honen berririk eta sinatzeko asmoa badu, jar dadila harremanetan Durangaldeko plataformarekin, [frackingezdurangaldea@gmail.com](mailto:frackingezdurangaldea@gmail.com) e-mailaren bitartez.

Jasotzen ditugun erantzunekin, hauteskunde kanpaina publiko egin go ditugu hautagai nagusien posizionamenduak.

Julen Orbegozo Terradillos, Fracking Ez! plataformaren izenean

Arrate Elkoro Zengotitabengoa ELAko Eskualdeko arduraduna



**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).




**Hauteskundeak**

## Alkategaien aurkezpenak

**EAJ Joseba Derteano** Durangaldeko hainbat herritan EAJk maiatzeko hauteskundeetarako hautagiak zerrendak aurkeztu ditu. Iurretan, Iñaki Totorikaguena egungo alkatea izango da zerrendaburua, eta “konpromiso handiko” iurre-

tarrek osatutako taldea dela nabarmendu dute. Julian Gorospe txirrindulari ohia ere zerrendan dago. Otxandion, berriz, Beñat Gorospe buru duen taldeak “gaztetasuna eta esperientzia uztartuz pertsona konprometituekin osatutako

hautagai zerrenda” aurkeztu du. Mallabian, Igor Agirre zerrendaburua mallabitarren bizi kalitatea hobetzeko “politika eraginkorra” egiteko asmoagaz aurkezten da. Mañarian aurreko agintaldian zinegotzia den Julen Uribelarrea izango da alkategaia. Javier Arteaga alkate izandakoa hirugarren postuan dago zerrendan.



Batzar Nagusietara aurkeztuko den Ana Otadui lurretako aurkezpenean.



Otxandioko EAJren hautagaiak.



Igor Agirre buru duen EAJren taldea.



Uribelarrea buru duen EAJren hautagaizta, Mañarian.

## Debate politikorik ez egitea erabaki dute Durangon

**EH BILDU** Durangoko EH Bilduk jendaurreko debate politikoa egiteko proposamena egin du udalbatzarrean, baina EAJk, PSE-EEk eta PPK ez dute ekimena babestu.

Bestalde, hauteskundeetara begira, Oskar Matute parlamentariak Durangoko EH Bilduren lokala inauguratu zuen martitzenean, Andra Marian. Berrizko EH Bilduk, oster, Karmen Amezua aurkeztu du zerrendaburu, eta Iturriza kalean lokala inauguratu du. Izurtzan, berriz, orain lau urtera arte alkate izandako Lorea Muñoz izango da alkategaia.



Duangoko EH Bilduk Andra Marian zabaldu du lokala.



Karmen Amezua zinegotzia izan zen aurreko agintaldian.



Muñoz alkategaiaren ostean, Iker Ballarin da bigarrena izurtzako zerrendan.

## Gobernu taldeak berriro aurkeztu du bere burua

### INDEPENDENTEAK

Jose Luis Navarro alkatea izango da Abadiñoko Independentek taldearen udal hauteskundeetarako zerrendaburua, eta agintaldi honetan zinegotzi izan diren ordezkariak beteko dituzte aurreko postuak. Diotenez, “herriaren aldaketa sozial eta urbanistikoa inplikaturako gizon-emakume ezagunek” osatzen dute zerrenda.



Abadiñoko Independentek taldeak prentsara bidalitako argazkia.

## Fran Garate da PPren Durangoko alkategaia

### Banketxeke langilea da Garate zerrendaburua

### PP

PPk Durangorako zerrendaren berri eman zuen martitzenean, Santa Anan egindako ekitaldian. Zortzi agintalditan zerrendaburu izandako Juan José Gastañazatorre Durangoko zerrendan hirugarren postuan joango da, eta Fran Garate banketxeke langilea da zerrendaburu. Bigarren postuan Josune

López kokatu dute. PPko zerrendaburuak esan du krisi saioan lana sustatzea izan behar dela lehentasuna, eta enpresei zein komertzioei laguntza ematea. Gizarte laguntza zabaldu nahi du, eta herriko kirol zein kultur elkartei lagundu gura die. Gainera, tren geltoki zaharreko lurra urbanizatzea beharrezko ikusten du.



Durangaldeko PPko ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian.

## Pedro Sánchez Durangon, Arrosaren Festan

### PSE-EE

Alderdi sozialistaren Arrosaren Festak 3.000 lagun batu zituen joan zen domekan, Durangoko Landako Gunean. Idoia Mendia euskal sozialisten buruak, Pedro Sánchez PSOEko idazkari nagusiak eta Mikel Torres Bizkaiko sozialisten buruak ekitaldian parte hartu zuten.



PEDRO SÁNCHEZ

Mendiak azaldu zuenez, “herritar guztiengan pentsatuz gobernatzen duten bakarrak” sozialistak dira. Pedro Sanchezek, berriz, lagun arteko kapitalismoagaz amaitzeko eskatu zion PPri, eta “politika negozio pribatuekin nahastea” leporatu zion.



**Guillermo 'Willy' Toledo** | Aktorea | Madril, 1970

## “Inplikazio pertsonalari eta kolektiboari esker lortu dugu filma aurrera ateratzea”

Maiatzaren 3an, 20:00etan, Elorrioko Arriolan aurkeztuko du Willy Toledok 'Historias de Lavapiés' filma



Madrilgo Lavapiés auzoko institutan irakaslea den Ernestoren papera antzezten du Willy Toledok filmean.

### > ZINEMA Itsaso Esteban Zelan sortu da Elorrion aurkezpen hori egiteko aukera?

Filmaren produkzio lanetan dabilzan kideei bururatu zaie. Izan ere, momentu honetara arte Madrilgo aretoetan bakarrik lortu dugu filma aurkeztea, eta zabaltzeko bide berriak probatu gura genituen. Ezagunen eta lagunen bitartez, zinema txikietan eskaini gura dugu filma, jendeak ikusi dezan.

### Inplikazio berezia eskatzen dio aktoreari estilo honetako proiektu batek? Aurkeztera honaino etortzeko, adibidez.

Edozein filmetan zati bat promozio lana egitea izaten da, baina kasu honetan ez daukagunez ezelako laguntzarik, ez mediatarik, ez ekonomikorik, ez banaketa arlokorik, ez bestelakorik, inplikazio handiagoa eskatzen du. Kooperatiba bat sortuta finantzatu dugu proiektua, eta langileok kobratu barik egin dugu lan. Inplikazio pertsonalari eta kolektiboari esker lortu dugu film hau egitea, eta modu horretan lortu gura dugu ahalik eta jende gehienak ikusi dezala.

### Proiektua ekonomikoki bideragarri egitea zelan lortu duzue?

Ekarpen pertsonalen eta babesleen bitartez lortu dugu. Filmaren aurrekontua 70.000 euro

ingurukoa izan da, eta, lehen aipatu dudan bezala, gehienok kobratu barik egin dugu lan.

### Kobratu barik lan egitea da gertzen den bide bakarra?

Egin ditudan azken hiru filmak kobratu barik egin ditut, baina

argi dut hori ezin daitekeela eredu produktibo berria izan. Besteen lanetik etekina atera izan dutenek are negozio hobea dute orain; ez dute ez produkzioaz, ez kontratuez, ez soldatez arduratu beharrik. “Egin ditzatela euren filmak, eta amaitzen dutenean

ikusiko dut ea gustuko dudan eta banaketan sartuko naizen ala ez”. Hori da azkenaldian gailentzen dabilen formula.

### Zelako lantaldea ibili zarete 'Historias de Lavapiés' sortzen?

25-30 lagun ibili gara filma egite-

ko doan lan egiten. Gidoi bat aurrera eramanez bost urte badaramatzazu, eta bide bakarra hau dela ikusten baduzu, urtean behin egin daiteke horrelako lan bat, baina ezin daiteke arau bihurtu. Gremio oso bat ezin daiteke kobratu barik lanean ibili. Jendeak lanetik bizi behar du. Ni nazkatuta nago doan lan egiteaz.

### Filma kokatua dagoen Madrilgo Lavapiés auzoagaz lotura berezia duzue proiektu hau gauzatu duzuen partaideek?

Bai, lantaldeko kide gehienak bertan bizi dira, eta neu ere asko egoten naiz bertan. Auzoa oso ondo ezagutzen dugu guztiok. Ramón Luque gidoilari eta zuzendaria, esaterako, aspalditik bizi da auzo horretan.

### Zer kontatzen du filmak?

Neuk antzezten dudan familia diruduneko semea, Ernesto, Lavapiésko institutu batean irakasle lanetan hasten da, eta bertan topatzen duen errealitate latza erakusten du filmak. Lavapiésen kultura, hizkuntza eta klase nahasketa handia dago, eta horrelako auzoetako eskoletako arazoez dihardu filmak. Baina, bestetik, etorkinen kontrako jazarpen polizialaz eta jende askok bizirauteko egin behar duen borroka ere badihard. Burgesiarren burbuilan bizi izan den Ernesto protagonistak begiak zelan zabaltzen dituen erakusten du filmak, beretzat gordinegia den errealitate hori zelan bizi duen.

Duela bi urte egin zuten *Historias de Lavapiés* filmaren grabazio lana, Madrilgo auzo horretan. Dokumentala eta fikzioa uztartzen dituen lana da. “Oso berezia da, oso bitarteko gutxigaz grabatutako lana delako”, azaldu du Willy Toledo aktoreak. “Leku askotan baimekin barik grabatu behar izan genuen, eta, figuraziorik ez geneukanez, kaleko jendearen irudiak hartu genituen erdi ezkutuan”. Apaindura gutxiago dagoenez, horrelako filmazioetan lana askoz arinagoa dela azpimarratu du Toledo: “Soldata duin bat edukiko bagenu, lan egiteko modu hau nahiago izango nuke”, azpimarratu du. “Lantalde askoz gizatiarragoa da, eta denok laguntzen dugu edozertan”.

Baina kalean grabatzearen konplexutasuna ere bizi izan zuten *Historias de Lavapiés* grabatzean. Toledo kontatu duenez, auzoaren erdiguneko plaza batean grabatzen zebiltzala,

## Narrazio dokumentala eta fikzioa uztartu dituzte 'Historias de Lavapiés' sortzeko

Duela bi urte, Madrilgo Lavapiés auzoan ibili ziren filma grabatzen

mozkor galantagaz zegoen neska bat behin eta berriz sartzen planoan. “Beste ekoizpen batzuetan produkzioko lantaldeak konpontzen ditu horrela-

ko arazoak, baina oraingoan denon artean bilatu behar izan diegu irtenbidea horrelakoei”.

Arazo sozialak, laboralak edo politikoak lantzen dituzten

film gehiago ikusi gura luke Toledo: “Zinema eta antzerkia ezin dira kaletik aldentuta bizi: gogoetarako gaia eman beharko ligukete”.



Arazo sozialez dihardu asteburuan, Elorrioko Arriolan, emango duten filmak.



# Emakumezkoen krisialdiez, 'Obarixo biaz', Plateruenean

Domekan, Plateruenean eskainiko du saioa Ondarroako Traman & Brix taldeak

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Teresa Caloren *Historias de mujeres en crisis* antzezlanaren moldaketa eskainiko du Onda-

rrako Traman & Brix taldeak, maiatzaren 3an, 19:00etan, Durangoko Plateruenean. *Obarixo biaz* izeneko antzezlanaz uztai-

lean estreinatu zuten, Ondarroako Beikozinin. Traman & Brix taldean ikasturte honetan prestatu duten lana da *Obarixo*



Teresa Caloren 'Historias de mujeres en crisis' testua Ondarroako berbakera ekarri dute 'Obarixo biaz' antzezlanaz sortzeko.

## > ANTZERKIA

Urtetan, kale antzerkiaren inguruko egitaraua antolatuta izan du Iurretako Udalak urteko sasoi honetarako, eta, "antzerkia bultzatzen jarraitzeko" helburuagaz, areto barrurako eskaintza egin dute aurten. Horrela, aurrerantzean, antzerki programazio egonkorra eskainiko du Iurretako Udalak: umeentzako obra bat eta helduentzako beste bat eskainiko ditu hilero, eta emanaldi guztiak doakoak izango dira, "herritar guztiek" gozatu ahal izateko.

Apirilean estreinatu dute Ibarretxe kultur etxeak udaberri honetarako prestatu duen egitaraua. Hilaren 17an, Deabru Beltzak antzerki taldearen helduentzako *Opera abeslaria* ikuskizuna eskaini zuten, eta, atzo, umeentzako *Zapata gorriak*.

Maiatzerako eta ekainerako antzerki eskaintzaren berri eman dute, dagoeneko, Ibarretxe kultur etxetik. Maiatzaren 15ean, esate baterako, Glu Glu

## Heldu zein umeentzako antzerki programazio egonkorra, lurretan

Hilero umeentzako eta helduentzako antzezlan bana eskainiko dute Ibarretxen



Ekainaren 12an, Lauka Teatroa taldearen 'Amodioaren ziega' izango da lurretako kultur etxean ikusgai.

Produkzioak taldearen *La última oportunidad* lana izango da kultur etxean ikusgai. Helduei zuzenduriko maiatzeko eskaintza izango da hori. Ekainean, berriz, Durangaldeko aktoreen *Amodioaren ziega* antzezlanaz

ikusteko aukera izango da Ibarretxen. Ekainaren 12an izango da Lauka Teatroa taldearen emanaldi hori.

Umeei zuzenduriko ikuskizunak izango dira, bestalde, maiatzaren 22koa eta ekainaren

*biaz*. Kattalin Arizmendiarrak Ondarroako berbakera ekarritako testuak "umorea, kritika eta drama" biltzen dituela azaldu du Ana Elordi antzezlanaren zuzendariak. Taldeki-dearen berbetan, "krisialdian dauden emakumeak dira protagonistak: egoera ekonomikoak, arazo existentzialek eta laneko kontuek eragindako krisialdia bizi duten emakumeak".

Hain zuzen, emakumezkoak dira taldeko antzezleak: 20 eta 60 urte arteko ondarrorarrak. "Horregatik, emakumeentzako testuen bila ibiltzen gara, eta azken urteotan testu garaikideak aukeratu izan ditugu gehienbat. Emakumezkoek sortutako lanak, sarritan", azaldu du Ana Elordi zuzendariak. Ildo horretakoak dira *Obarixo biaz* lanaren aurretik prestatu dituzten *Gizonak* edo *Hauxe da paraderu* antzezlanak ere.

Ana Elordi aktoreak zuzentzen du 2007. urtetik Traman & Brix taldea, eta berak zuzenduriko antzerki tailer batean elkarturiko partaideek osatzen dute taldea.

## GEURE DURANGALDEA

ARANTZA  
ARRAZOLA ETA  
MAIDER  
LARRAÑAGA

San Agustin  
kulturgunea



## Sormenez

*Ezagutzaren gizartea* ei da gurea, izenak txiste mordo bat sortu ditzakeen arren. Orain arte gauza berriak sortzeko pentsatzen genuen; sasoiotan, ordea, jakintza berria sortzeko pentsatzen dugu, ezagutza bide izatetik helburu izatera pasatu da. Teknologiarri lotutako gizarte baterantz goaz, informatika orojale bihurtu da, hobeto esanda, bihurtu dugu, orain gauza gutxi dago ordenagailu batek egin ez dezakeenik, eta oraindik puntaren punta besterik ez dugu ikusten.

Mekanizatu ahal den guztia makinek egingo dute aurrerantzean, eta gero eta gauza gehiago mekanizatuko dira, besteak beste, gure ahalegina horretara bideratzen dugulako. Testuinguru honetan, pertsonak gure sormenagatik bakarrik izango gara baliotsu.

Sarri ahaztu egiten dugu guk geuk sortzen ditugula makinak, eta ez alderantziz. Ordenagailuek bizidunok aurreikusitako egoeren aurrean erantzuna abiada bizian ematen dute, baina, zorionez, bizitzak sarri barre egin eta beste bide batetik jotzen du, bizirik egoitea baita bizitzaren esentzia. Horregatik, pilotu automatikoak dauden arren, trenetan hezur-haragizko pilotuak doaz, eta irakasleen egitekoak zentzua izaten jarraitzen du.

Beste animalietatik bereizten gaituen ezaugarri nagusienetakoa irudimena eta sormena erabiliz esangura konpartituak asmatzeko gaitasuna da. Eta zer da, bada, teatroa, hori ez bada? Istorio bat asmatu, kontaera aukeratu, oholztan jarri eta aurrean dagoenarekin partekatu... eta hark uler-tu! Gozatu dezagun humanotasunaz, izan gaitezen pertsona.

**Recortes**  
Montse Samuigarte  
& Nouveau Colombier  
Maiatzaren 8an  
20:30ean

**Zugan ni eguna**  
Durangoko Kurutzia  
ikastolako taldea / Elorrioko  
taldea / Iurretako taldea /  
Durangoko Jesuitak taldea  
Maiatzaren 9an  
20:00etan

**ZUGAN NI EGUNA**

Martinak bere istorioa  
aurkitu zueneko  
Mauma elkarte  
Maiatzaren 10ean  
18:00etan

**ZINE GOAK**

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA

PLATERUENA

**Durangoko Kafe Antzokia** [www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO  
MENUA  
ASTELEHENETIK  
OSTIRALERA

MAIATZAK 3  
19:00etan  
**OBARIXO BIAZ**  
ANTZERKIA

MAIATZAK 8  
21:30ean  
**DURANG(H)OTS  
JAM SESSION**  
MUSIKA KONZERTUA

MAIATZAK 13  
19:00etan  
**LABURBIRA**  
IKUS-ENTZUNEZKOA





# Eguzkilore

haurreskola

matrikulazio epea:  
maiatzaren 4tik 13ra, biak barne

**Etor zaitetzte  
Haurreskola ezagutzera!**





# Bernardo Atxagak zabalduko du Poesia eta Pentsamendua zikloa

‘Gogoeta harri baten inguruan’ berbaldia eskainiko du Atxagak, Durangon



Maiatzaren 6an, Durangoko Arte eta Historia Museoa eskainiko du Atxagak hitzaldia.

**> LITERATURA** **Itsaso Esteban**  
Poesia eta Pentsamendua zikloaren zortzigarren edizioa egingo dute, maiatzaren 6an eta 7an, Durangon. Egun bakoitzean, berbaldi bat eta poesia errezitaldi bat eskainiko dituzte parte-hartzaileek.

Bernardo Atxaga idazlearen hitzaldiak zabalduko du aurtengo Poesia eta Pentsamendua zikloa: *Gogoeta harri baten inguruan* hitzaldia eskainiko du altsasuarrak. Atxagaren berbaldiaren ostean, Leire Bilbaok eta Gerardo Markuletak poesia errezitaldi bat eskainiko dute.

Atxagaren hitzaldiaren ostean, Leire Bilbaok eta Gerardo Markuletak poesia errezitatuko dute

Iñaki Urdanibiak ‘Pensar el poema’ izenburuko berbaldia eskainiko du, maiatzaren 7an, Durangon

Maiatzaren 7an, berriz, Iñaki Urdanibia filosofian doktoreak eskainiko du berbaldia, Durangon: *Pensar el poema* izenburuko saioa eskainiko du. Tere Irastorza eta Castillo Suarez idazleek, euren poesiak errezitatu, itxiko dute egueneko saioa eta aurtengo zikloa.

Durangoko Arte eta Historia Museoa, 19:00etan hasiko dira eguazteneko eta egueneko hitzorduak. Urtero bezala, museo emanaldietara hurreratzaren direnek errezitaturiko poemak jasotzen dituen argitalpen bat eskuratuko dute.

# ‘Gernika’ filmaren hainbat grabazio lan, Durangaldean

Maiatzaren 4an hasiko dute Koldo Serrak zuzentzen duen filmaren grabazioa, besteak beste, Arrazolan

## > ZINEMA

Datozen egunetan, Durangaldeko hainbat kokalekutan grabatuko dituzte *Gernika* filmerako irudiak. Koldo Serra (Bilbo, 1975) da zuzendaria, eta Gernikan bertan, duela 78 urteko bombardaketaren testuinguruan, gertatzen den maitasun istorio bat kontatzen du. Egileek azaldu dutenez, gerrako kazetarien lanari omenaldi bat ere egin gura izan diote istorioagaz.

Maiatzaren 4an hasiko dituzte filmatze lanak, eta, besteak beste, Atxondoko Arrazola auzoan ibiliko dira lanean. Zuzendariak aurreratu duenez, Seymour eta Cappa gerrako argazkilarien irudi batzuetan inspiraturiko sekuentzia da lehenengo grabatuko dutena: frontera abiatu orduko meza entzuten dauden gudarien irudia. Atxeko baserri inguruan, Agarre baserrirako bidean eta Arrazolako kanpandorrea ibiliko dira. Grabaketa lanen eraginez, autobus zerbitzuek zein bestelako zerbitzu batzuek ere aldatetak izango dituzte.

Serrak gidaturiko lantaldeak asteak daramatza filmerako kokaleku proposak bilatzen, eta dekoratuak prestatzen. Elorrion ere egingo dituzte gra-

bazioetako batzuk, Leiz-Miota auzoan, hain zuzen.

Malagako (Espainia) Pecos ekoiztetxeak abiatutako proiektua da *Gernika*, duela hiru urte martxan ipinitakoa, eta AEBetako hainbat partaidek ere badihardu bertan.

Maria Valverde aktoreak antzeztuko du protagonistetako baten papera, eta Barbara Goenaga, Alex García, Víctor Clavijo, Irene Escolar, Ramón Barea eta Elena Irureta aktoreak ere lantaldean daude. Bestalde, hainbat hautaprotaban aukeraturiko milatik gora figurantek ere hartuko dute parte Koldo Serraren film honetan.



Filma iragartzen duen kartela.

# ‘Hitzez eta ahotsez’ ekimenean, 236 herritarrek sei orduko erritmo biziko ikuskizuna eskaini zuten

Joan den barikuko Durangoko Platerueneko irakurraldiagaz eman dute aurtengo ekitaldia amaitutzat



Ekitaldi horretarako sortutako hainbat olerki irakurri zituzten.

**> LITERATURA**  
Iaz, Joseba Sarrionandiaren berbekin osatu zuten *Hitzez eta ahotsez* ekimena, eta, aurren, bigarren edizioan, itsasoaren inguruko literatura atera dute

plazara. Ikasturte honetan garatu dituzten irakurle klubaren ostean, ekimena amaitutzat emateko ekitaldia egin zuten, joan zen barikuan, Durangoko Plateruenean. Sei orduko errit-

mo biziko ikuskizuna, etenik bakoia, eskaini zuten parte hartu zuten 236 herritarrek. Kultur arloan dihardutenak, eta herritar literaturazaleak elkartu ziren hitzordu horretan, adin guztie-

takoak. Antolatzaileen berbetan, “gazte askok parte hartu zuten, eta baita helduek eta 80 urtetik gorakoek ere”.

Kultur arloan diharduten hainbat lagun eta herritar literaturazale elkartu ziren barikuko hitzorduan

Hitzek, kantuek, musikak, eta irudiek osatu zuten apirilaren 24ko Platerueneko emanaldia. Euskarazko literaturaren itsasoa gaitzat harturik sortutako olerkiak eta prosa pasarteak irakurri zituzten: Joseba Sarrionandiak ekitaldirako idatzitako *Balea* olerkia, eta hainbat ikasle, irakasle eta bertsolariak sortutako lanak, adibidez.

Irakurraldiekin tartekatuta, musika emanaldi laburrez ere gozatu ahal izan zuten Duran-

goko kafe antzokiko ekitaldira hurreratu zirenek.

Antolatzaileen berbetan, giro oso polita sortu zen. “Partaideak gustura egon zirela uste dugu”, esan dute. Hain zuzen, parte hartu zuen jende horri guztiari eskerrak eman gura izan dizkiete.

Euskal literaturaren sakontzeko asmoz antolatzen dute ekimena; iaz, Joseba Sarrionandia iurretarraren obran sakontzeko eta haren lana ezagutarazteko helburua gauzatu zuten, eta, aurren, euskal literaturaren historian leku berezia izan duen itsasoaren inguruko iruditeriaren gainean gogoeta egin, eta hainbat sortzailearen lana gizarteratu dute.

Barikuko hitzorduan parte hartu zuen jende guztiari eskerrak eman gura izan dizkiote antolatzaileek

Jendeak aurtengo ekitaldiari eman dion erantzun ona ikusita, datorren urteko edizioa antolatzeke animo asko jaso dutela esan dute antolatzaileek.



# DRTren errugbi jardunaldietan Río de Oro elkartearentzako materiala batuko dute

Rugby Tag jardunaldien bosgarren urtean, kirola eta elkartasuna uztartuko dituen bidea hasi dute



Durango Rugby Taldeko eta Río de Oro elkartearen ordezkariak, eguaztenez, Rugby tabernan. Lehiar Elorriaga

**> ERRUGBIA** Joseba Derteano Durango Rugby Taldeak gazte-txoen artean errugbia sustatzeko antolatzen dituen Rugby Tag jardunaldiek bosgarren aldia beteko dute, baina aurtengo aldia berezia izango da. Errugbia eta elkartasuna uztartuko dituzte, eta Río de Oro elkartearentzako material bilketa egingo dute. Elkarre honak Tindufeko kanpalekuan bizi diren eta urri-tasun bat duten gazte saharauiak Euskal Herrira ekartzan ditu, uda hemen igaro dezaten.

Durango institutuko, Kurutziaga ikastolako, eta Nevers, Jesuitak, San Antonio-Santa Rita eta Zabalarra ikastetxeetako ikasleek parte

hartuko dute Rugby Tag jardunaldietan; 9 eta 16 urte arteko 1.000-1.500 ikasle inguru igaroko dira Arripausuetatik, maiatzaren 4an, 7an, 13an, 14an eta 15ean. Egunerokotasunean erabilgarriak diren produktuak ekartzeko eskatuko diete: arropa, higiena zaintzeko produktuak eta nagusientzako pixoi-halak, adibidez. Aratz Gallastegi DRTko kideak ekimenaren aurkezpenaz azaldu zuenez, "aurten abiatutako elkartasun bidea urtero egitea da asmoa".

Río de Oro elkarteak Maider Caballero esker oneko agertu zen, eta gazte saharauiei kanpalekuetatik irteerak zer suposatzen dien azaldu zuen: "Han

isolaturik daude, ez daukate irteteko modurik, eta urte osoa hemen hartuko dituen familia baten zain egoten dira". Elkartasun ekimenetik jasotako ma-

teriala gazteak hona datozen erabiliko dute. Baliteke, bueltan doazenean, arropa eta bestelako materiala mailetan Tindufera eramatea. Jasotako material kopuruaren arabera erabakiko dute nola kudeatu. Edozelan ere, material guztia gordetzeko zein euren erabili ahal izateko lokal baten bila dabilta.

Aurten gazte saharauiak ekartzen dituzten hirugarren aldia izango da; udan hamar gazte ekarriko dituzte, horietako zazpi lehen aldiz. Autogestioan oinarritzen dira, eta dirua batzeko hainbat ekimen egiten dituzte. Maiatzaren 23an, III. Río de Oro Jaialdia egingo dute Iurretan, eta, ekainaren 7an, Arymux taldeagaz batera erakustaldia eskainiko dute Plateruenean.

## Igoera faseko partidua jokatu du DRTk etzi

Ekimen solidarioan ez ezik, Durango Rugby Taldea Oheretako Mailarako igoera fasean ere zentratuta dago. Joan zen astean, San Cugatzen kontra 19-27 galdu ostean, igotzeko ia aukera barik geratu da. Hala ere, oraindik partidua bi geratzen

zaizkio jokatzeko. Aurrenekoa domekan izango da, 12:00etan, Arripausuetan. Sevillako Caja Sol taldea hartuko du. Partiduaren atarian Pablo Berasaluze pilotari berriztarrak oheretko saka egingo du. Partidu amaieran, jan-edana eskainiko dute. Joan zen asteko partiduan itxura bikaina eskaini zuen DRTk, eta azken unera arte irabazteko aukera izan zuen. Zaleek txaloka agurtu zituzten jokalariek.

## Zornotza playoffetako finalerdien bila, bihar

Galizian irabaziz gero, sailkatu egingo litzateke

### > SASKIBALOA

Zornotza Saskibaloia Taldeak Urrezko Adecco Ligara igotzeko playoffak hasi zituen martitzenean, Xuven Cambiados taldearen aurka. Larrean jokatuak partiduan nagusitasunez gailendu zitzaion talde galiziarrari:

91-70. Bigarren zatian, batez ere, gehiago izan zen. Bihar, bigarren partidua jokatu du Galizian. Irabaziz gero, playoffetako finalerdietarako sailkatuko da. Galtzen badu, Larrean jokatu dute hirugarren partidua erabakigarria.



Martitzeneko partidua amaieran, jokalariek elkarrekin garaipena ospatzen.

## Oyarbidek Euskadiko Txapelketa irabazi du

Lehenengo euskalduna izan zen Barrundian



Lourdes Oyarbide eta Yulia Ilinykhik. Bizkaia-Durango

### > TXIRRINDULARITZA

Joan zen asteburuan, Bizkaia-Durango taldea garaipenik garaipen ibili zen. Yulia Ilinykhik errusiarrak Barrundian eta Traña-Matienako lasterketak irabazi zituen, eta Euskaldun Torneoako lidergoan sendotu zen. Barrundian, Euskadiko Txapelketa zegoen jo-

koan, eta Lourdes Oyarbide izan zen lehenengo euskalduna, lau garren postuan. Beraz, bera da errepedeko Euskadiko txapelketa. Gazte mailetan, Iurreta CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendiak Elorrioko eta Traña-Matienako lasterketak irabazi zituen, eta Euskaldun Torneoako lider darrai.

### > AGENDA

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Durango Kulturala - Balmaseda**  
· Barikuan, 12:15ean, Tabiran.

##### OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Gatika**  
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaietan.

##### LEHEN ERREGIONALA

**Ezkurdi - Etxebarri**  
· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Amorebieta B - Solokoetxe**  
· Zapatuan, 18:00etan, Txolonen.

**Zorrontzako - San Ignacio B**  
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

#### > ARETO FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Elorrioko Buskantza - Egintza**  
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

##### EUSKAL LIGA

**Mallabia - Atxurre Bakio**  
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

##### MAILA GORENA

**Sasikoa B - Txoko**  
· Zapatuan, 19:00etan, Durangon.

##### LEHEN ERREGIONALA

**Mallabia B - Beseka**  
· Domekan, 16:15ean, Zaldibarren.

**Elorriko Txiki - Adarve**  
· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioren.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Mendibeltz - Mundaka**  
· Zapatuan, 17:30ean, Durangon.

#### > PILOTA

##### SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA (finalak)

##### Paleta goma erakustaldia

- Pradera-Saez / Arrizabalaga-Etxaniz  
Pilota finalak lau 1/erdian (gazteak):

- Arrizabalaga-Egiguren  
Pilota finalak lau 1/erdian (nagusiak):

- Arabiourrutia-Uriona  
· Barikuan, 17:00etan, Traña-Matienako pilotalekuan.

##### SAN TROKAZ TXAPELKETA

##### Binaka kadete mailan

- Zabala-Zubeldia / Atutxa-Barturen  
- Osa-Oyarzabal / Rodriguez-Garcia  
- Karrera-Artola / Albizuri-Gorostizaga  
- Orbeagoz-Oliden / Aurrekoetxe-Martiregi

Zapatuan, 16:30ean, Zelaietako pilotalekuan.

##### Promesak

- Albizu-Pujana / Rey-Izurietak

Domekan, 11:00etan, Zelaietako probalekuan.

##### BIHARKO IZARRAK

- Laso-Martinez / Labaka-Urizar

Maiatzaren 7an, 21:15ean, Mallabian.





Amorebieta B bigarren urtez segidan igo da.



Otxandioko Vulcano Maila Gorenera itzuli da.



Zaldua B azkenengo hamaika partiduak irabazita igo da. Antonio Villanueva



Amorebieta klubeko gazte mailako taldea.

## Amorebieta klubeko talde bi, Vulcano eta Zaldua B mailaz igo dira

Zaldua Bk azken hamaika partiduak irabazi ostean lortu du igoera

**> FUTBOLA** Joseba Derteano  
Joan zen asteburuan, Durangaldeko hainbat futbol taldek mailaz igotzea lortu zuten. Lorpen horiek aurretik Zorrontzako taldeko jokalariek eta Durangoko Kulturalako gazteek lortutakoei gehitu behar zaizkie.

Amorebieta klubak igoera bi lortu ditu azken aste bietan. Amorebieta B Bigarren Erregionaletik Lehenengo Erregionalerara igo da. Orain aste batzuk, maila berean igoera lortu zuen Zorrontzakok ere. Beraz, datorren denboraldian, derbia

errepikatuko dute, baina maila bat gorago. Amorebietako gazte mailako taldea ere Euskal Ligatik Nazional Mailara igo da.

Zaldibarko Zaldua B-k Bigarren Erregionalean jokatu du hurrengo denboraldian. Denboraldia pattal hasi arren -lehe-

nengo sei partiduetatik bakarra irabazi zuen-, sasoiari amaitu du: azken hamaika partiduak bata bestearen atzetik irabazi ditu.

Otxandioko Vulcanok Arabako Maila Gorenera itzultzea lortu du. Azken hamarkadan hainbat bider igo eta jaitzi da. Aurten esperientzia handiko taldea osatu du Vulcanok, eta jaun eta jabe izan da bere mailan. Ohi bezala, Otxandioko kaleetatik eta Paskuali traktorearen gainean ospatu zuten jokalariek igoera.

## Sanprudentzioetako finala jokatuko du Arabiourrutiak

Gaur jokatuko dituzte finalak Traña-Matienan

**> PILOTA**  
San Prudentzio Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 17:00etan, Traña-Matienan. Lau t'erdian eta nagusien mailan, Aitor Arabiourrutia abadiñarrak Uriona aulestiarra izango du parez pare. Gazte mailako finalean, aldiz, Arrizabalaga markinarrak eta Egiguren tolosarrak neurtuko dituzte indarrak. Final horien aurretik emakumeen paleta gomako erakustaldi bat egongo da.

**Durangoko txapelketa**  
Batean amaitu eta bestean hasi. Durangon, Jose Mari Agirre Peter-en oroimenezko txapelketa hasi dute. Kadeteak eta promesak lau t'erdian dabilta, eta nagusiak binaka. Lehen jardunaldian, Sagastak eta Lejardik irabazi zituzten lau t'erdiko partiduak, eta Agirrezabal eta Bilbao gailendu ziren binaka. Maiatzeko zapatuetan jokatuko dituzte partiduak, 19:30ean. Finala ekainaren 7an izango da.

## Pilotari gazterik onenak Zornotzan lehiatuko dira

Lau t'erdiko txapelketa abiatu dute Zornotzan

**> PILOTA**  
Lagun Onak pilota elkarteak Lau t'erdiko Pilota Txapelketa abiatu du Zornotzan. Euskal Herriko Pilota Txapelketako egutegiaren barruan kokatuta dago, eta, gaur egun, gazte zein kadete mailan dauden pilotaririk onenek parte hartuko dute.

Guztira, 60 pilotari dabilta maila bakoitzean, hiru multzotan banatuta: Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik hamabosna, Arabatik hamar eta

Errioxatik bost. Txapelketa orain asteburu bi hasi zuten, eta uztail hasierara bitartean kanporaketak jokatuko dituzte pilotaleku bitan: Amorebieta IV pilotalekuan eta Eubako udal pilotalekuan. Finalurrekoak uztailaren 11n izango dira, eta finala uztailaren 18an, zapatua.

Durangaldeko hiru pilotaririk jokatuko dute gazte mailan: Lizundiak (Zornotza), Zezeagak (Iurreta) eta Gisasolak (Mallabia).

### ADITUAREN TXOKOA



**Eneritz Iturriaga**

BZK taldeko zuzendaria

#### Familia eta kirola

Beti entzuten dugu, kirol ekitaldiak izaten diren egunetan, ume asko batzen dela. Hori horrela baldin bada, zergatik, gero, ez dira hainbeste egoten askotariko kirolei lotutako eskoletan?

Badakit hainbat faktore egon daitezkeela. Hasteko, hainbat kirol dago aukeran gaur egun. Kirol horiek izan ditzaketen arriskuek ere zerkusia izan dezake. Komunikabideek kirol bakoitzari ematen dioten garrantziak ere badu bere eragina. Horiek horrela izanda ere, ez al duzue pentsatzen gurasoen hezkuntzagatik ere izan daitekeela?

Gaur egun garaia aldatu dira. Egunetik egunera jende gehiagok egiten du kirola, bai, baina oraindik asko eta asko dira kirola egiteko aukerarik edo gogorik ez dutenak, bizitza estresatuaren eraginez edo ezin dutelako horretarako denborarik atera. Horrela, umeari esaten zaionean kirola egitea ona dela, bai osasunerako, bai diziplinarako, eurak ere gurasoen moduan aitzakiak aurkitzen saiatzen dira, edo haserreak sortzen dira.

Horregatik, gurasoek ahalgin berezia egin beharko lukete gaztetxoek eredu izateko, ikusten dutena ikasten dutelako. Azken batean, gaztetxo, heldu zein nagusi, kirola denentzat da onuragarria.

Beraz, hauxe da nire proposamena: egun bakoitza bihurtu dezagun kirola egiteko egun; berdin familiarrekin, lagunekin edo taldekideekin... Egundak jaiegun izaten dira umeentzat, beraz, egin ditzagun horrelako egun gehiago guk geuk, segur aski denori irribarre gehiago eta bizi gehiago emango ligukete eta.


**GAER**  **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**momotx**  
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: 946 811 006



# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PEDAGOGIA

**UGAITZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

## PODOLOGIA

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA  
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA  
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoportmetriazentroa.com

RPS: 162/13

## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**  
ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia


Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

 **Profesional onenak zure zerbitzura!**





## “Etxanokoa lez, borroka handirik egon ez zen fronte asko ahaztuta geratu dira”

Ofizioz antenista da, baina Aranzadin tekniko prospekziogile lanetan ibiltzen da Alberto J. Sampedro; 'Diario de un gudari en el frente de Euskadi' liburua argitaratzeko koordinatzaile lanak egin ditu

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
36ko gerran girotutako 'Diario de un gudari en el frente de Euskadi' liburua aurkeztu dute Zornotzan. Kolpe militar faxistari egindako erresistentziaren barruan, gatazka belikoaren bost une ditu ardatz, geografikoki bost gune: Markina, Gernika-Mungia, Zornotza, Lemoako haitzak eta Bilbo-Kantabria. Koordinatzaile lanetan ibili da Alberto J. Sampedro. 36ko gerra eta mendia, hamasei urte dira bi zaletasunak uztartu zituela, eta Aranzadiko tekniko prospekziogilea da gaur egun. Liburua osatzen, beragaz ibili dira José Ángel Fernández eta Juan Ramon Garai.

Etxano eta Aramotz artean eutsi zion frontean bizitakoak jaso dituzue, besteak beste, liburuan; Jaime Urkijo erreteriarren bizipenak.

Horrek erakarri ninduen Urkijok idatzita utzitako bizipenen hiru atalen artean; azkenengoak, eskuz idatzitakoak. Idatzio garbi jartzea zen asmoa. Hala ere, Etxanora heldu aurretik, Markinatik Mungiara joan zireneko denbora tarte hori ez

zenez ageri, ikertzea erabaki genuen. Gernika ere suntsitu zuten tarte horretan. Urkijok Lemoatxen amaitu zituen idatziak, bataila hura berak antolatu zuen. Hala ere, oso nahastuta zeuden —umetako bizipenak, aititari buruzkoak, gerra karlistari buruzkoak eta gudari zeneakoak, esaterako—, eta hori guztia ondo jarri gura izan dugu.

**Dena ordenatu...**

Gauza batek bestera eramaten zaitu, eta Lemoan egon eta gero zer gertatu zen ere ikertu genuen: Burdinazko Gerrikora joan zen, Artxandara gero, eta Kolitzara —euskaldunen azken eraso izan zen—. Asturiastik Frantziara pasatu zen. Horre-

“*Etxanon 15 egunez eutsi zioten, maiatzaren 18an Zornotza jausi arte*”

gaz guztiagaz liburua osatzea pentsatu genuen. Lotura haria hartu, eta iparraldeko fronteak Bilbo jausi artean bizitakoak batu ditugu.

**36ko gerran dago girotuta.**

1936ko Gabonetan hasten da istorioa, Bilboko Uribarriko kuartelean dagoela. Handik Markinara bidali zuten, Rosa Luxenburgoko Arrosa batailoian. Kapitain intendentea zen bera, eta komandantea Manuel Cristobal Errandonea zuen. Urberuagako bainuetxera bidali zuten, ingeniaria izanik, hura babeslekutzat egokitze.

**Biografia bat da?**

Urkijok bizitakoak kontatzen ditu. Ikusi eta egindakoak. Adibidez, Durangora joan zenekoa: intendentziara joan behar izan zuen janari bila, eta sarraskiak ahozabalik utzi zuen.

Zornotzan, Etxano eta Aramotz artean mantendu zen fronteak. Autzagane eta Etxano arteko zati horretan eutsi zioten. Ia ez du oihartzunik izan, baina badago hor mendi kota esanguratsu bat: 333a, *Heriotzaren pinudia* deri-

kenengo bataila hori, Lemoatxekoa, ezagunagoa da.

**Ahaztuta geratu da Zornotzako fronteak.**

Beste asko bezala: Urkiola, Saibigain, Otxandio eta Intxorta, adibidez, entzungo zenituzten. Baina, Arraten, adibidez, hiruzpalau hilabete egon ziren, 50 metroko trintxeretan. Borroka handirik egon ez zen fronte asko ahaztuta geratu dira.

**Jaso duzue anekdota bitxirik?**

Askok. Adibidez, Urkijok bere burua ez zuen komunistatzat —ANVkotzat edo abertzaletzat zuen bere burua—, baina Rosa Luxenburgoko batailoiko komunista zen, eta batailoiko horretakoak soldadu astuariarrekin egon ziren Etxanon. Sasoi hartan gudaria (abertzalea) eta milizianoa (ezkerrekoa) izatea asko bereizi arren, bere ustez, denak gudariak ziren. Kontatzen duenez, asturiarrek sukaldeak jarri zituzten elizako portikoan, eta, kulturik egon ez arren, miliziano bat barrura sartu zenean errieta egin zion Errandoneak —komunista bera—, txapelagaz sartu zelako. Astuariarrei dena txukuntzeko agindu zien, eta baserrietan gordeta zeuden apaizak aurkitzeko. Errandonea apaizekin batzartu zen, eta eliza txukuntzeko eta kultoagaz berriro hasteko aukera eman zien. Bitxia da, komunistek edo gorriek apaizak hil, eta elizak eta mojak erre zituztela esan delako beti. Bestalde, baserri batzuetan oiloak lapurtzen saiatzeagatik Barakaldo batailoiko hiru soldadu epaitu zituzten, eta horietako bi Etxanoko hilerrian fusilatu. Urkijo abokatu defendatzaile izan zuten. Jaurlaritzak baserri-tarrak zaintzeko agindua zuen.

**Zenbat milizianok jardun zuten Etxanon?**

